



Errumaniarrak Bermeon

Ainhoa Unanue Mentxaka

Errumaniarrak Bermeon

■ Ainhoa Unanue Mentxaka

© Edizio honena: Bermeoko Udala - Euskara Saila

© Obrarena: Ainhoa Unanue Mentxaka

Zuzenketa eta koordinazio lana: Bermeoko Udala - Euskara Saila

Argazkiak eta dokumentazioa: © Errumaniaren Madrileko Turismo Bulegoa
Bermeon bizi diren errumaniarrak

Lege gordailua: BI-2272-08

Maketazioa eta inprimaketa: antza komunikazio grafikoa • Lasarte-Oria

ARGITARATZAILEA

LAGUNTZAILEA





aurkibidea

SARRERA	5
HITZAURREA.....	7
1.- ERRUMANIA	9
2.- HERRIALDEAREN BANAKETA	15
3.- BERMEON BIZI DIREN ERRUMANIARREN JATORRIZKO HERRIAK.....	31
4.- BERMEON BIZI DIREN ERRUMANIARRAK	51



Sarrera

Esku artean duzun liburu hau Ainhoa Unanueren eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetzaren fruitua da. Bermeon bizi diren etorkinen herriak eta familiak hurbilagotik ezagutzeko tresna izateko idatzi dugu. Aurrerantzean helburua, kultura arteko ikuspegi batetik elkar ulertu eta errespetatzea izan dadin.

Metodologiari dagokionez, Errumaniako eta Saharako familiekin elkarlanean egin da dokumentazio lana. Bere herri edo ingurunearekiko interesa nabaritzen duenean, azkar atera ohi zaio irribarrea edonori. Errumaniako eta Saharako etorkinek, haur zein heldu, kontatu digute beraien herriak zelakoak diren, zelan bizi diren bertan edo zein ezaugarri dituzten, argazkiez lagunduta.

Azken hamar urteotan immigrazio mota berri eta berezi baten aurrean gaude. Izan ere, orain arte ezezagunak zitzaizkigun mundu osoko kulturak ezagutzen ari gara. Kultura horien berri izateko, aplikazio praktikoa izango duten eta ikasleengan pentsatuta dauden bi liburuxka hauek aurkezten ditugu.

Ez dugu olatutik aparte geratu nahi, baizik eta olatuari aurre egin. Esan nahi da, Bermeon gure ekarpena egin nahi diogula kultura artekotasunari. Egun, 941 etorkin bizi dira gure herrian, horietatik 391 errumaniarrak dira, eta sahararrak beste 64. Asko bakarrik heltzen dira, beste batzuk norbait ezagutzen zuten aurretik eta horregatik etorri dira, lanerako asmoz denak Ume, gazte, zahar zein heldu. Gure artean bizi dira, baina gutxi dakigu beraiez eta haiek gutaz.

Aipatzekoa da, historian zehar migrazioak gizonen kontua izan badira ere, egun errealitate hori aldatu egin dela. Batetik, pobreak emakume irudia hartu du. Bestetik, gero eta gehiago dira sorterría eta familia utzita, lan eta bizi baldintza hobeen bila abiatzen diren emakumeak. Horregatik, genero ikuspegi batetik munduari begiratzen ikaslea beharrezkoa izango da etorkizuneko ikasleentzat.

Bermeon bizi diren ikasle etorkinen kopurua 10 aldiz hazi da azken sei urteetan. Hezkuntza arloan ikasleok dituzten zailtasun nagusiak komunikazio arazoak eta maila, eredu eta hezkuntza ohiturekin lotutakoak dira. Gizartean errotuta dauden aurreiritzi eta estereotipoek ere ez dute batere laguntzen. Leku guztietan denetarikoa jendea dagoenez, etorkin guztiak gaiztoak direla pentsatzea, adibidez, ez da bidezkoa, ezta erreala ere.

Beraz, guretzat formula egokiena kultura arteko lanketa, heziketa eta balioak lantzea da. XXI. mendeko denbora eta espazio berrietan kultura desberdinetako pertsonak elkarrekin bizi gaitzen bidea egiten lagundu nahi du liburu honek. Euskaraz idatzita dago, egun Bermeon ikasle guztiek euskaraz ikasten dutelako eta, horrezaz gain, kultura eta hizkuntza aniztasun egoerak hizkuntza gutxituak biziberritzeko balio dezaketelakoan.

Topiko guztien gainetik mugak zabaldu eta irudimena erabiliz murgildu!!!!



Hitzaurrea

Euskara batzordeburua naizenez, atsegin handiz aurkeztu gura ditut liburu interesgarri bi hauek, bata Bermeon bizi diren sahararrei buruzkoa eta bestea errumaniarrei buruzkoa.

Liburu hauen jatorrian Ainhoa Unanuek egindako lan proposamena dugu, Bermeora heldu diren beste herri eta kultura batzuetako herritarrak ezagutu eta gurean dagoena ezagutzera ematea helburu, hartara, Euskal Herriko kultura eta hizkuntza eta bertora bizitzera etorri direnen kultura, herriak eta hizkuntza hobeto ezagutu ditzagun.

Izan ere, immigrazioa fenomeno berria ez izan arren, azken hamarkadan beste era bateko kontuak ezagutzen ari gara, munduko herri askotako herritarrak etorri dira gurera. Bermeora nagusiki, Errumaniatik, Saharatik, Kolonbiatik eta Boliviatik etorri dira, eta konturatu gara ezer gutxi dakigula herri horietaz. Herri bat ezagutzeko modurik onena bertakoek esandakoa kontuan hartzea denez, Bermeon egun bizi direnengana jotzea eta eurekin berba egitea modurik zuzenena dela zalantzarik ez daukat.

Hori dela eta, herri bitan arreta ipini genuen eta hala idatzi dira Sahararrak Bermeon eta Errumaniarrak Bermeon liburuak.

Gaztetxoekin lantzeko moduko materiala sortu da liburuon bitartez eta sinetsita nago tresna ona izango dela bertokook kanpotik etorri direnak hobeto ezagutzeko eta kanpotik datozenek bertokoak ezagutzeko. Horrela aberasten dute herriek euren arteko komunikazioa, horrek ematen baitigu bidea elkarren berri izateko.

Balio dezatela liburuok Sahararen, Errumaniaren eta Euskal Herriaren kulturak, hizkuntzak eta herritarrak hobeto ezagutu ditzagun.

Karmele Algorta Telletxea
Euskara batzordeburua



Errumania

Europako ekialdea lurralde oso zabala dela diogunean, Errusia erraldoia datorkigu burura, ezta? Romania, eurek esaten duten moduan edo Errumania, herrialde ezezaguna da guretzat, baina horrek xarma gehiago emango dio, akaso. Antzinako ohiturek bizirik jarraitzen dute, iparraldean batik bat, eta kondairaren arabera ijitoen jatorrizko herrialdea litzateke. Karpatoak izeneko mendizerrak herrialdeko eremu gehiena hartzen du, eta Danubio ibaia ere bertan itsasoratzen da, Itsaso Beltzean. Herrialde interesgarria, ezta?



Hango maila ekonomikoa ez da hemengoa bezain ona, ez dago klase ertainik, aberats gehiegi eta pobre asko, dirua gaizki banatuta dago. Horregatik, euren herrialdea utzita beste leku batzuetara bizi-tzera etortzen dira. Bermeon hainbat errumaniar daude, Moldova, Maramures eta Prahovakoak gehienak. Guztira zenbat dauden jakitea ezinezkoa den arren, gutxi gora behera 400en bat izan daitezke egun, baina, urtetik urtera kopurua goraka doa. Euren herriak ezagutzeko prest al zaudete?

Sobietar Batasunaren eta sozialismoaren gainbeherak zerikusi handia eduki du inguruko herrialdeetan. Mapa zaharrean, Errumaniako erregioen lehengo izenak agertzen dira. Lehen 8 eskualde ziren eta orain 5; Ardeal, Muntenia, Transilvania, Moldova eta Dobrogea. Esan behar da Moldaviako Errepublikak aspaldi batean Errumaniaren parte zela, baina, egungo Errumaniaren ere Moldavia eskualdea badagoela.

Ze koloretakoa da Errumaniako bandera? Denok ez gara egungo estatuen ikurrekin identifikatzen, baina, noizbait koloreok ikusten dituzenean jakin dezazuen balioko dizue. Futbol partiduan, autoaren matrikulan, txapelketa batean... hiru zerrenda horizontal, ezkerretik hasita, urdina, horia eta gorria badakizue nongoa den.



45. paraleloan dago Errumania, eta 24 milioi pertsona ingururen jaioterria da, asko bertan bizi ez badira ere. Bost eskualdetan banatuta dagoela aipatu dugu goian, eta horietako bakoitza hainbat probin-

tziantan banatzen da. Jakingo duzuen bezala, Bukarest da hiriburua, eta hiri garrantzitsuak dira halaber Konstantza, Iasi, Timisoara, Galati, Brasov, Cluj-Napoca, Craiova, Ploiesti eta Braila, guztiak 200.000 biztanle baino gehiagokoak. Adibide gisara, Prahova Bizkaia izango litzateke, Ploiesti, Bilbo, eta Muntenia, aldiz, EAE.

Mapa honek ariketa gisa balio dizue, herrialdearen mugak zeintzuk diren eta erkidego bakoitza zelan banatuta dagoen jabetzeko. Mapa politikoa da, non probintzien izenak eta banaketa agertzen diren. Hala ere, ez dugu ahaztu behar mendi eta ibai mordoa daudela Errumanian. Erkidego aberatsena Konstantza da, bertan itsasoratzen da Danubio ibaia eta leku oso turistikoa da, hondartzak, katedrala eta abar ditu. Errumaniako iparraldean, Maramuresen eta Moldavian gorde dira ohiturak ondoen. Iparraldean Ukrainarekin, ipar-mendebaldean Hungariarekin, hego-mendebaldean Serbiarekin, hego-ekialdean Bulgariarekin eta Itsaso Beltzarekin eta ipar-ekialdean Moldaviako Errepublikarekin egiten du muga.





BUKAREST HIRIAREN IKUSPEGIA. Lehen planoan Parlamentua ikusten da. Eraikin monumentalak da benetan, sei mila gela ditu eta munduko handienetan bigarrena da, Pentagonoaren ostean. Eraikina ilargitik ikusten da, bitxikeria gisa. Lur azpitik zazpi solairu ditu.

Dambovitako haran txikian dago Bukarest hiria, **valaca***n edo lautadan; Danubiotik 50 km baino gutxiagora eta Karpatoetatik 100 km-ra. Erdiguneko bizitoki-auzo aberatsetatik haratago zeuden lehengo herri itxurako langileen auzoak.

Hiriburua, herrialdeko gune kultural eta ekonomiko nagusia dena, duela 500 urte baino gehiago eratu zen. 30eko hamarkadan “Paris txikia” ere deitzen zitzaion, zuhaitzez zainduriko bere pasealekuengatik.

80ko hamarkadan hiriak berreraikuntza zabala jasan arren, parkeen hiria da Bukarest, barazkiz betea, atsegina, udan terrazadun kafe-tegiz betea eta ontzian bidaiatzeko aukera eskaintzen duena inguruko laku eta ibaietan.

Bukaresten bisitatu beharreko tokiak dira Artearen Museo Nazionala, lehengo Errege Gazteluko eraikinean dagoena, Historiako Museo Nazionala, Calea Victoriei-en, Ateneoa eta Curtea Veche, hiriko lekurik zaharrena eta XV. mendean margoturiko eliza duena. Curtea Veche da hiria fundatu zen lekua.



Ateneoa - Bukarest.



Herrialdearen banaketa

Herrialdea hiru eskualdetan bana daiteke. Erdian Trantsilvaniako meseta emankorra, eta meseta hori inguratuz arku baten itxurako mendikatea osatzen duten Karpatoak daude, eta horien inguruan, lautadak.



Errumaniako mapa fisikoa.

Trantsilvaniako mesetan Karpatoak izeneko mendiak daude iparraldean eta ekialdean, eta Transilvaniako Alpeak hegoaldean. Oihanez Errumaniako lurren % 27 hartzen dute Karpatoetako mendietan. Karpatoak Ukrainako mugaraino hedatzen dira eta, orokorrean, osagai bolkanikodunak dira, hala nola, kobrea, zinka, gatza eta petroliodunak.

Ekialdeko edo Moldaviako Karpatoak 1.200 m-ko altitudetan daude, batez beste. Bucovinako eta Maramurako mendietatik hegoaldera hedatzen den Pietrosul-ek, adibidez, 2.305 metro ditu. Hegoaldekoak edo Trantsilvaniako Alpeak garaiagoak dira, oro har, eta herrialdearen hegoaldean daude. Bertan dago Errumaniako mendi altuena, Moldeveanul, 2.544 metrokoa. Mendebaldeko Karpatoak txikiagoak dira.



Hegoaldeko Karpatoak.

Klima kontinentala da herrialde guztian. Ploiestin, adibidez, neguan hotz handia egiten du, zero azpitik 35 gradurainokoa, eta udan, aldiz, beroa, 40 gradu ingururainokoa. Errumanian neguan elur asko egiten du leku denetan, ez mendian bakarrik. Klima oso homogeneoa da lurralde osoan. Neguan mendi elurtuak bereziki prestatzen dira eskiatzera doazen turistak hartzeko eta udan Danubioren deltako hondartzek hartzen dituzte bisitari gehien, kanpokoak zein Errumaniako beste toki batzuetakoak.

Errumanian 2.300 laku inguru daude, mendikoak gehienak. Mendiko ibaietatik datorren koloretako arraina bere zapore gozoagatik oso preziatua da. Laku ezagunenak, Sinac, Brates, Tasaul eta Snagov, batzuk aipatzearren. Azpimarratzekoa da mendiko lakuetan bainatzen dela jendea, eta mendian etxolak alokatzen dituztela bertan oporrak igarotzeko.

Gizartea

Errumaniak 237.500 km²-ko azalera dauka eta, horietatik, % 63 nekazaritzako lurak dira. Horrez gain, herrialdearen bi heren Europako aberatsenetakoa den faunaz osatuta daude; otsoak, hartzak, gamak, azeriak, ahuntzak, txerri basatiak... bizi dira.

Biztanleen banaketari dagokionez, % 85 errumaniarrak dira, % 7 hungariarrak, % 4 ijitoak eta ondorengo herrietako gutxiengoak daude: alemaniarrak, ukrainarrak, serbiarrak, eslovakiarrak, turkiarrak, txekiarrak, greziarrak, hebrearrak, armeniarrek... Errumanian ere etorkinen kopurua igo egin da azken urteetan, eta Afrikako iparraldekoak eta txinatarrak bildu dira, batik bat.

Gizonen bizi-itxaropena 66,36 urtekoa da, batez beste, eta emakumeak 74,19 urtera arte bizi dira, batez beste. Emakumeko haur kopurua haur bat eta erdikoa da, baina kontuan eduki behar da Transilvanian eta Dobrogean familia bakoitzak ume bat edo bi baditu ere, Moldavian 7-8 ume izaten dituztela familiako.

Errumaniako lurpea oso aberatsa da, horren erakusgarri dira Ploiestiko eta Moldaviako petrolioia, Trantsilvaniako gas naturala, Banat-eko eta Petrosani-ko ikatza, lignittoa, burdina, beruna, kobrea, zinka, bauxita eta manganesoa, azken hori 1944tik 1989ra.

1945era arte nekazaritzan oinarrituriko ekonomia zen nagusi. 1949tik aurrera, 50 hektareatik gorako lur-eremuak kolektibizatu egin ziren herri demokraziaren bidez. Horrela, makina eta ongarriekin ekoizpena handitu egin zen. Ordokietan (Valakia, Moldavia, Trantsilvania eta Drobogea) garia eta artoa lantzen dira. Trantsilvaniako haranetan eta Podgorikan fruituak eta barazkiak landatzen dira batez ere.



MENDIKO BIDEA.

Lurrazpiko harribitxi eta kobazuloen artean, paisaia berdea. Zibilizazioaren aztarnak Paleolitoko artera garamatza. Inguru aberatsa arkeologia, historia zein paleoantropologiari dagokienez. Egun, mendiko jardueretarako leku aproposa da.

Uzta ugarietak, artoa, patata, azukrea, erremolatxa, garia eta zekalea dira. Zerealak eta igaliak esportaziorako erabiltzen dira batik bat. Ardi eta txerri hazienden ustiapena zabalduta dago eta mendiko jendeak, behiak, ardiak... ditu eta behien eta ardien esnea, haragia, larrua... erabiltzen eta gordetzen dira. Normalean ez dute janaririk

erosten, etxeko produktuak dituztelako; txerria, oiloak, behiak... hori bai, lan asko egin behar da ondoren jakiak edukitzeko.

Errumaniako baserritarren **blusak***, emakumezkoenak **ie*** eta osagarri guztiak; **flote***, **ilice***... Hala nola, gizonzkoen blusak, galzjak eta **pellico***a, jai-egunetakoak dira. Horiek buruko apaingarri zehatzekin osatzen dira –hemen elizako garaietatik “igandetako arropak” deitzen direnak–. Inperio Otomandarren garaian, Errumania Turkiaren menpe zegoenean, gaztelau asko zeuden eta beraiek erabiltzen dituzten jantziak Moldaviako folk ohituren parte dira.

Gure folklorea ikertzerakoan Europan gaudela kontuan hartu behar dugula dio Juan Antonio Urbeltzek, dantzei buruzko ikerketan aditua den nafarrak. Guretik hain ezberdinak diruditen herriak ezagutzeak kulturen arteko loturak finkatzeko urratsak egiten lagun diezaguke.



Haurrak eta gazteak jantzi tradizionalak soinean dituztela, eta ogi otzarak artisau-opilekin.

“Orain urte batzuk osatu nuen hipotesia. Ez da teoria, oraindik ez delako onartu. Nik defenditzen dut Neolitiko garaian osatu zela egungo ekialdeko Turkia, Iran eta Irak aldean, gizakia abereak etxekotzen eta laborantza egiten hasi zela eta, horren ondorioz biztanleria ugartu zenez, Europa barrualdera mugitzen hasi zela, poliki-poliki, baina etengabe. Eta noski, erritualak ere hedatuz joan ziren. Horregatik diot oinarri bera dutela Europako kulturek, gero herri bakoitzak bere garapen propioa izan duen arren. Horrexegatik dira horren antzekoak Errumaniako, Greziako eta Euskal Herriko dantzak, besteak beste”.

Ibaiak

Danubio da herrialdeko ibai garrantzitsuenak, gainerako ibai nagusiak bere adarrak dira. 2.850 m luze da, eta Danubio ibaiaren eta Itsaso Beltzaren artean daude Dobrogeako herriak eta Danubioko deltarren inguruak. Serbia eta Bulgariako muga osatzen du hegoaldeetik kilometro askoan eta delta ikusgarria Itsaso Beltzaren bokalean. Hauek dira beste ibai batzuk: Mures, Olt, Prut, Siret, Arges, Tiu, Buzau, Bistrita eta Teleajen.



Danubio ibaia.

Hizkuntza

Errumaniera edo romanian hizkuntza erromanikoa da, izenak adierazten duen moduan, eta 22 milioi hitzun inguru ditu. *Poza* izeneko bat izan zen errumaniera latinetik zetorren hizkuntza zela ohartzen lehena, XVI. mendean. Bi dialekto nagusi bereizten dira, Bukarestekoa eta lasi-koa, eta dialekto nagusiaren barruan ere mota ezberdinak bereizten dira. Moldaviera, Sobiet Batasuna izandakoan hitz egiten zen *dazio-errumaniera* mota berezi bat da, eta alfabeto zirilikoa idatzi da oraintsura arte.

III. mende bukaeran, godoen, hunoen eta eslaviarren erasoetatik ihesi, Karpatoetako mendietan babestu ziren **daziarrek*** garaturiko hizkuntza da errumaniera. Hizkuntza erromanikoetatik isolatuta egon zela-ko eta eslaviar hizkuntzen eta hungarieraren hurbiltasunaren eraginez, bilakaera berezia izan du. Hiztegia latinean oinarriturikoa bada ere, fonologia eta gramatika ez dira beste hizkuntza erromanikoen modukoak. Kokagunea dela-eta, hizkuntza eslaviarretatik, turkieratik, hungarieratik eta albanieratik hitz ugari hartu ditu. Gainontzeko hizkuntza erromanikoetan galdutako latinaren hiztegia gorde du, gainera.

Errumanieraz eta latin hizkera erabiliz idatziriko lehen testua, "Eslaviar elizako liburuak" 1508. urtean argitaratu zen eta bi mendetan erlijio testuak soilik idatzi ziren errumanieraz. Errumaniako literatura modernoa independentziarekin batera jaio zela ezan daiteke, XIX. mendearen erdialdean. Mikhail Eminescu olerkaria, Ion Creanga eleberriz eta ipuin idazlea eta Ion Luca Caragiale antzerkigilea izan ziren pizkunde garaiko idazle nagusi batzuk.



Mikhail Eminescu Ion Creangă Mikhail Kogălniceanu Nicolae Iorga

■ Ingurune babestuak

Leku babestu izendaturiko bederatziz natur parke daude Errumanian. Bermeon bizi diren Prahova probintziakoak, Bucegi mendien ingurukoak dira. Karpatoetan hainbat hegazti eta animalia espezie daude.



Danubioko delta. .

- 1- DANUBIOKO DELTA. Unescok Biosfera Erreserba izendatua duen ingurunea, ibaiaren hiru adarrek triangulu bat osatzen dute, eta bertan itsasoratzen da Danubio ibaia.
- 2- RETEZAT MENDIAK. Hartziko mendiak ugariak dira herrialdearen mendebaldean, Karpatoetan mendiok herrialdeko lehenengo natur parkea dira, 1935ekoa, 13 hektarearekin, Biosfera Erreserba izendatuta dago.

- 3- CEAHLAU MASSIF. Karpatoen ekialdean dagoen natur gune honetan 2.000 landare espezie baino gehiago aurki daitezke.
- 4- BUCEGI MENDIAK. Hegoaldeko Karpatoetan dago Errumaniako ibilbide turistiko gidatu gehienetan sartzen duten leku hau. Bucegi mendiak, beheko argazkian
- 5- PIETROSUL MARE MASSIF. Rodna-ko mendien alde batean dago, Karpatoetako zonaldean. 5.900 hektareako natur erre-serba honetako 750 hektarea ikerketarako dira. Flora eta fauna espezie arraroak daude.
- 6- PENTELEU MENDIAK. Karpatoetako berezko “kurbadura” irudikatzen du; landa eremu alpino anitzak eta ohian zabalak.
- 7- DOMOGLED MENDIAK. Karpatoen hego-mendebaldeko ingurunean dago.
- 8 IRON GATES. Zentral hidraulikoak eta nabigaziorako inguru-neak izen bera daukate. Danubion dago.



Bucegi mendiak.

Historia

Antzinaroan hainbat herri bizi izan ziren egungo Errumaniako lurretan. Trajano enperadoreak, Dazia hartu zuen enperadore erromatarrek, sortu zuen Daziako probintzia K.o. 106. urtean. Hurrengo mende eta erdian herrialdea erromatartu eta latinetik zetorren hizkuntza bat erabili zen, protoerrumaniera. Barbaroek kanporatu egin zituzten erromatarrek III. mendean eta hurrengo sei mendeetan inbasio ugari jasan zituen lurraldeak. XI. mendean kristautasuna herrialde osora zabaldu zen.



Esteban Handia.

Trantsilvania hungariarrek hartu eta konderrietan banatuta eduki zuten. Valakia eta Moldavia Hungariako erresumatik banatu ziren XIV. mendean eta inperio otomandarraren aurka ere konderri moduan borrokatu ziren Esteban III.a Handiaren agintaldian.

XVIII. mendean hasi zen Otomandar Inperioaren gainbehera, Errusiaren aurkako gerrarekin (1828). Garai hartan zabaldu zen nazionalismoa Errumanian. Valakian eta Moldavian matxinatu ziren abertzaleak zapaldu zituen Errusiar armadak.

Errusiaren eta Otomandar Inperioaren arteko gerraren (1877-78) ondoren, 1881ean Errumaniak independentzia lortu zuenean, Karol I.a erregea jarri zen boterean.

Lehen Mundu Gerran Errumania Inperio handien aurka gudan sartu zen, eta 1916an Alemaniak okupatu zuen. Handik bi urtera aliatuen garaipenari esker, Trantsilvania, Bukovina eta Besarabia berreskuratu zituen. Lur-erreformak egin ziren eta nolabaiteko demokratizaziora bide-

an zihoan herrialdea 1929ko krisi ekonomikoak berriz hondoratu zuenean. Ondorengo urteetan mugimendu faxista indarra hartuz joan zen.

Antonescu jeneralaren diktadurapean Errumania Sobietar Batasunaren aurka Hitlerrekin bateratu zen. Gobernuburua atxilotu zuten eta gerra piztu zen ondoren. Gerra ostean komunismoa indartu zen. 1947ko abenduaren 30ean onartu zen Errumaniako Herri Errepublika. Lege zibil eta teoria komunistetan oinarrituriko sistema ezarri zuten.

1964an Sobietar Batasunarekiko independentzia ekonomikoa eta politikoa aldarrikatu zuten. Estaturburua hil zenean Ceausescuk ordezkatu zuen eta hogeitaz hamar urte iraun zuen erregimen sozialistari aurre egin zioten lehenik Timisoaran eta Bukaresten eta beste herrietan gero.

Herriaren Aldeko Frontekoak “sozialdemokrata” izatera pasa ziren –hemengo EE eta PSOE-ko asko bezala–. Ekonomian gorakada txiki bat izan zen arren, populazioaren bizi baldintzek ez zuten hobera egin. 1995ean errumaniera inposatu zuten hizkuntza ofizial bakartzat, eta gutxiengo hungariarrekin liskarrak egon ziren. 1996tik aurrera, “Bigarren Trantsizioa”rekin, egonkortasun ekonomikorako ahaleginak egin arren, egoera ez zen askorik aldatu.

Sistema sozialistatik kapitalistarako jauzia zaila izan da Errumanian, monetaren eta finantzen ahultasuna atzerriko enpresen pribatizazioarako jaki preziatua delako. Nazioarteko turismoa asko hasi da azken urteotan, mendi ingurura zein hondartzetara doazen turistentzako eskaintzarekin batera.



Errumaniako errepublika sozialistako bandera.

■ Industria

Ekialdeko herrien artetik nekazaritzako produktuen bigarren ekoizlea da, Poloniaren atzetik. Landatzeko lurrek lurraldeko azaleraren % 62 hartzen dute.

1989ra arte, gobernuaren ezaugarriak zirenak izan ziren nekazaritza politikaren ezaugarriak: antolakuntza zentralizatua, ekoizpena eta banaketa estatuko enpresen eta kooperatiben esku egotea. 1990ean, Lurraren Propietatearen Legea martxan jarri zenean, hasi ziren estatuko enpresak pribatizatzen, eta atzerriko lantegi handien esku geratu ziren.

2008ko urtarriletik Europar Batasuneko kide da Errumania, eta 2012an euroa izango da moneta berria. Hauek dira 90eko hamarkadan Errumaniako industriaren egoera zaila azaltzen duten arrazoi batzuk: ekoizpen prozesu zaharretarako energia kontsumo handiegia, multzo industrial erraldoien mantenimendua, produktuak merkaturatzeko ahalmen eskasa eta enpresen zorduntzeko balio altua.

■ Aintzinako ohiturak

Negukoak dira ziurrenik zaharrenak, kristautasuna sustraitu baino lehenagokoak baitira (XI. mendetik aurrera). Ohitura hauen jatorria erritu paganoetan dago. Errituen helburua itxaropena, baikortasuna eta beharrezko oreka lortzea da. Beraz, adierazpideon irudikapenak lirateke ohitura hauek. Urte Berria ospatzeko ohiturak; **Sorcova***, **Plugusorul***, **Semanatul...**

Hona hemen neguko ohituren zenbait adibide:

- Espiritu gaiztoak uxatzea, **zamboraba***ren bidez; adar, zintzarri eta abarrekin harrabotsa aterata.
- Zeruak ireki, altxorrak erre eta animaliak hitz egingo dutela itxarotea.

- Espazioaren purutasuna bilatzea, ureztatzearen eta bainu erritualetan bitartez.
- Egutegi meteorologikoak sortzea.
- Lanaren hasiera sinbolikoa.

Udako ohiturak, landatutako fruituak eta barazkiak babesteko erritu magikoei lotzen zaizkie. **Lazaritelor*** izenekoak, eguzkiaren antzina-ko gurtzea da; oraindik dantzatzera atera ez diren neska gazteak hazienden ugaritasuna eta pertsonen osasuna desiatuz joaten dira etxez etxe. Lehorteen kasuan, **paparudele***ak (neska gazte ijitoak), gorputza hostoekin soilik estalita, euria egiteko dantzak eta abestiak errezitatzen dituzte.

Udazkena “ezkontzen urtaroa” da, garai horretarako baratzeko fruituak bilduta eta ardo berria ere kupeletan sartuta dagoela aprobetxatzen dute ezkontzeko.

Turismo motak

Errumaniako turismoa ugaria da; eta mendiko eta hondartzako turismoa bereizten direnez, urte guztian atzerriko turistak daude. Ondorioz, turismoko leku populatu gehienek ez bezala, ez du eguzkiarekiko eta hondartzarekiko menpekotasunik. 2001ean 5 milioi turista hartu zituen Errumaniak. Horietatik, % 22,9 hungariarrak, % 20 Moldaviako Errepublikakoak, % 7,9 bulgariarrak, % 6,6 alemaniarrek, % 6,5 Ukrainakoak, % 4,6 turkiarrak eta % 1,7 bakarrik, errusiarrek.

Hango bizimodua hemengoaren antzekoa dela diote errumaniarrek, ezberdintasun bakarra dagoela; han diru gutxi irabazten dutenez, ohiko lanaz gain beste lanik egin gabe hemen bezala bizitzea ezinezkoa dela.

Leku turistiko nagusia Itsaso Beltzeko litorala da. Bertako hondartzek milioi bat bisitari hartzen dituzte urtero. Hegoaldeko 72 km-etan zehar lo egiteko leku asko daude, eta batzuek bainutegi zerbitzuak ere eskaintzen dituzte.

Paisaiaren beraren aniztasuna, dituen eraikin historiko eta artistiko ugariak, bainutegiak eta osasun zentroak, eta neguko kiroletarako azpiegiturak ez dira nolanhikoak. Azpiegitura horien garapenari esker turismo mota askotarikoei erantzuteko eskaintza osatu du herrialdeak. Mendiko turismoan eta mendi-ibilian, neguko kiroletan, eskaladan, ehizan, kultur turismoan eta osasun turismoan berezitutako zortzi gune daude Errumanian.



*MENDIKO TURISMOA. Prahovako eskualdean mendiko turismoa jardue-
ra ekonomiko garrantzitsua da. Eskiatzeko eta neguko kiroletarako pistak,
lotarako etxolak, hotelak... daude, errumaniarrek "atzerritarren mendiak" dei-
tzen dietenetan. Transilvanian 24 eski estazio daude.*



MAMAIAKO HONDARTZA BAT. Itsaso Beltzeko kostaldeko hiri eta herriak turistaz lepo jartzen dira udan. Ohikoak dira hondatsetako terrazetan egiten diren jaiak. Hondartzan eta inguruko pasealekuetan hainbat terraza daude, musika aparailuak dituztenak. Hortaz, entzun nahi dugun musika estiloaren arabera, terraza batetik bestera joan gaitezke, gure gustukoena aurkitu arte. Moldaviako musika tradizionala, jazz, ijitoen musika... entzun daitezke.



KONSTANTZAKO PORTUA. Herrialdeko itsas portu garrantzitsuena dauka Itsaso Beltzean dagoen Konstantza hiriak. Erdigune industrial nagusienetakoa ere bada, ontzigintza, oihalgintza, elikagaien industria... nabarmendu daitezke. Horrez gain, herrialdeko lekurik turistikoenetakoa ere bada. E-60 errepidean, Konstantzatik 12 km-ra eskualde guztia hornitzen duen zentral termiko erraldoia dago.



DANUBIO ITSASADARRA. Herodorok aipaturiko Tulceatik, zeina itsasadraren atetzat hartzen den, ibaian zehar ibilbide desberdinak egiten dituzten ontziak ateratzen dira. Normalean erdiko zonaldeetik, itsasadarretik, izen bereko porturaino zeharkatzen da, eta bizantziarrek X. mendean fundatu zutena da helmuga. Beste aukera bat da errepidez Murighiol herriraino joatea, San Jorgeko kanaleraino. Aukera honek, arrantza egiteko, txalupan paseatzeko, aberastasun ornitologikoa behatzeko eta hau bezalako santutegi batean paisaia lasai kontenplatzeko beta eskaintzen digu.



DANUBIO ITSASADARRA. Danubio, Europako bigarren ibai handiena da, eta munduko 26.a. Ura eta lurra etengabeko borrokan aritzen dira bertan, aldaketa etengabea, kanalen armiarma-sareak, medanoak, ibai-basoak, itxura tropikaleko basoak, itsas eta ibai dunak, dena etengabeko metamorfosian. 3.000 espezie baino gehiagoren bizitokia da itsasadarra, migrazioetatik atsedeen hartzeko lekua. Hegazti guztien artean pelikanoa da erregea. Ikusteko erraza, baina hurbiltzeko zaila, etsairik gabeko lur batean arrantzan ikusi daitezke. Koloniarik nagusienak San Jorgeko kanalean daude. Ahate basatiak, zisneak, antzarrak... beha daitezke bertan.



Bermeon bizi diren errumaniarren jatorrizko herriak



JANTZI TIPIKOAK. Maramures, Bucovina, Muscel, Arges, Olt, Silbiu, Balsea, Gorj, Mehedinti, Neamt, Bazau, Prahova edo Bistritako ohiko jantziak hain ezberdinak eta askotarikoak diren arren, antzerako ezaugarriak ere badituzte. Jantzien mozketa bera eta "Dacio Felix"-eko garaietako inspirazio trazio-ilirikitik datozen ezaugarriak, adibidez.

Moldovako iparraldean eta Maramuresen gorde dira ondoen gaur egunera arte. Jantziok jai egunak ospatzen direnean erabiltzen dituzte, Maramuresen eta Moldovako eskualdeetan gaur egunera arte gorde dira. Gabik –Bermeon bizi den errumaniarrak– Muntenian ez ditu jantziok inoiz ikusi. lasiko Marinak, aldiz, jantzi tradizionalak direla dio, herri dantzetarako erabiltzen dituztenak. Herri musika belaunaldiz belaunaldi transmititu da, denak eskutik helduta dantzatzen dute, umeez zein helduek, lasiko Kulturaren Jauregian ospatzen diren jaietan.



MARAMURES, ERRUMANIAKO IPARRALDEA. Maramuresen denbora ez dela pasa dirudi, baliteke Maramures izatea egungo Europan ondoen gordetako sekretua. Folklorean aberatsa den lurra, paisaia zoragarria eta antzinako bizitza estiloa. Estresa ahaztu eta denbora ez dela pasatu irudituko zaizu Maramuresen. Jantzi tipikoak, mantak eta alfonbrak eskuz josten dituzte emakumeek. Horrez gain, ur-erroten gurpilek irina lortzeko aleei indarra ematen jarraitzen dute, baita josteko makinei ere, artzainak belar hazietan artaldeaz arduratzen dira.




*MARAMURES.
Etxeetako
egurrezko
ateak egiten.*



EMAKUMEA EHUNTZEN. Artisanu lana da nagusi.



MARAMURES. Baserriko bizitzan merkatu egunak "sakratuak" izan ohi dira; herritar guztiak batzen dira egun horietan, salgaiak trukatu, bakoitzak bere produktuak erakutsi eta komunitate osoak parte hartzen du. Ocna Sugatag herriko merkatua famatua da. Herri horretako egurrezko eliza ere aipatzeko modukoa da. Norbait hiltzen denean hileta bereziak egiten dituzte, herritarrak "prozesioan" ateratzen dira. Argazkian, hilerri bateko irudia.



Maramures inguruko eliza.



*Maramuresko
jaiak.*



Maramuresetik lasira pasatuko gara. Errumaniako iparraldean jarraitzen dugu, baina mendebaldetik ekialdera mugitu gara, unibertsi-tate eta kulturaren hirira, hain zuzen ere.



IASIKO KULTURAREN JAUREGIA, 1907koa. Palatul Culturii errumanie-raz. Eraikin erlijioso eta laikoen artean 200 monumentu baino gehiago daude lasin; museoak, antzokiak, arte galeriak, parkeak, lorategi botanikoa... Museo bat dirudi hiriak ere. Eraikin artistiko garrantzitsuak daude lasin, Kultur jauregia, Hiru Hierarken Eliza, Eliza metropolitanoa, Batasunaren Museoa, Pogor House, Ion Creanga Museoa... Eraikin erlijiosoengatik ezagutu da hiri hau urteetan. Ez zitzaizuen ahaztuko Moldovan gaudela, ezta? Mapa bat hartu eta jakingo al zenukete Prahovatik Moldovara joaten? Oraindik ez? Mendeetan, Errumaniako ipar-ekialdeko gune politiko, ekonomiko, sozial eta kultural nagusienetakoa izan da lasi, egun 300.000 biztanle baino gehiago dituen hiria. Polonia, Hungaria, Errusia eta Konstantinoplatik hainbat ibilbide egin zituzten kokagune horretaraino. lasiren garrantzi ekonomikoa azpimarratzen duen lehen testu idatzia 1408koa da, "Alexander Ona"ren garaikoa. Estrategikoki oso leku egokian zegoenez, militarren eta turkiarren kontrol eta inbasio zenbaezinak jasan ditu.



IASI: Trei Lerarhi eliza. Eraikuntza arkitektura valaca eta moldaviarren sintesi bat da, eta Ekialdeko irudiekin zizelkaturiko fatxadak ditu. Evlia Celebik 1659an esan zuen moduan, "ez idazlumarekin, ez hitzarekin ez dago deskribatzerik".



DRAGOMINAR-KO MONASTERIOA: NAOS MARGOA. Harrizko eliza da irudikoa, 42 metroko altuerakoa, Moldaviako altuena, Arte Zaharreko Museoa da egun.



IASI. GHEORGE EMILEN OMENEZKO ESKULTURA. Moldaviako eskualdea zeharkatzen du Siretul ibaiak Galati inguruan Danubiorekin bat egiteko. lasin gaude, Moldovako lehenengo hiriburuan. Trantsilvaniako Cluj-Napoca eta lasi unibertsitateengatik ezagutzen diren hiriak dira. Errumaniako lehenengo unibertsitatea 1860an eraiki zuten bertan. Horretaz gain, Gheorghe Emil, Nobel saridun errumaniar bakarraren jaioterria ere bada. lasitik Bukarestera 393 km daude, 6-7 orduko ibilbidea trennez. Garraioaren aldetik nahiko ongi komunikatuta dago, hiria batez ere. Estatubatuar askok ikasten dute bertan, adibidez. Errumaniarrek harro esaten dute Microsoft enpresa erraldoiko 24 punta-ko ingeniari beraien herrikideak direla. Propulsioko hegazkinaren lehenengo motorra ere errumaniar batek asmatu omen zuen.



Moldaviako mapa

*IASI-KO DOSOFTEI ETXEA
(XVII. mendekoa).*

*Garaiko erudito handi baten
izena dauka, "Arkuen etxea"
ere deitua, hiriko eraikin
laikorik zaharrena da, egun
Literatura Zaharreko
Museoa dago bertan.*



SIGHISOARA. Zaldunen nobeletako giroa bizirik dago ziudadelan. Trantsilvaniako vaivodak bertan ziren garaiko bizitasuna mantentzen du. Ez da museo bat, ziudadelako 140 etxeetan jendea bizi baita. Nekazaritza-estilo gotikoko Erdi Aroko multzo arkitektonikoaren adibide ona da, ondoen kontserbatu dena eta politena. Kale estuak, aldapak, adreiluzko etxeak, defentsarako 9 dorreren babespean (14 dorre zituen garai batean). Artisau gremioen izenak dituzte dorreek.



DRAKULAREN ETXEA, BRAN-EKO GAZTELUA. Braneko gotorlekuko lehendabiziko ziurtagiriak 1377ko azaroko data dauka. Gaztelu hau defentsarako dorrea eta Valachia Trantsilvaniarekin lotzen zuen merkataritza errepidean eraiki zuten, Vlad tepes printzearen biziak izan zen, eta egun historia museoa eta arte feudalekoa da. Printzea odolzalea zela diote, baina hark ez dauka Bran Stroker idazle ingelesak idatzitako nobelarekin zer ikusirik...



SNAGOV LAKUA, Drakularen hilobia dagoen monasterioa.



*OLT IBAIAREN HARANA. Olt ibaia Trantsilvanian jaiotzen da, eta Danubio-
ra isurtzen ditu bere urak. Iparraldea turismorako oso erakargarria da.*



Olteniako zeramika bereziki garrantzitsua da.



SIGHISOARA. Errumaniako herririk zaharrena Trantsilvanian dagoen Sighisoara da. Erdi Aroko herri hau Bukarestetik 350 km-ra dago. Bertako harresietan oraindik egoera onean dauden 11 dorre daude, XVI. mendeko eraikinek eta elizak adokin bordatuak dituzte. Bukarestetik Budapestera Oradiatik doazen tren guztiak gelditzen dira Erdi Aroko kutsua duen herri honetan. Munduan dauden Erdi Aroko herrietatik, politenetakoa eta ondoen kontserbatzen deneetakoa da Sighisoarara. Kale ikusgarri eta iraganeko usaindun bazterretan barrena, XIV. mendeko erlojua, Vlad printzearen etxea edo "Fortaleza" aurkituko ditugu.





SIBIU. Famatua da XIV. mendeko arkitektura duelako. Aireportu internazionala ere badu. Sighisoarik hurbil eta Brasovetik 100 km-ra dago, K.a. 100. urtean erromatarrak bizi ziren herri historikoa da. Trantsilvaniako alpeak hiriaren hegoaldean daude, eta paisaiak mendilerroetan barrena eszena ikusgarria eskaintzen du.



INAUTERIAK. Hartibaciu bailaran, Sibiun eta Lolelen ospatzen dira. Turkiatik datozen ohiturak dira, Hungariako sasngo gutxiengo etnikoek ospatzen dituztenak. Errumanian 20 herrialdeetako gutxiengo kulturalak bizi dira. Adibidez, Danubioko deltako Lipoviarrek, arrantzaleak, errusiar jatorria dute.



Txerriak lehortzen sukaldean zintzilikatuta.



Pelesko gaztelua.



TIMISOARA hiria, mendebaldeko Karpatoetan, Serbia eta Hungariako mugan. Belgradetik eta Hungariako mugatik nahiko hurbil dago Timisoara, zeina 600.000 pertsona inguru bizi diren Timis eskualdean dagoen. Alde zahar txikia du eta hiriarren gehiena ordubeteko ibilaldian ikus liteke, oinez. Eraikuntza batzuk berriztatuta dauden arren, eraikin gehienak zaharrak dira. Aipagarria da bertako Katedral ortodoxoa, oso orijinala; puntadun teilatu orlegiak eta dorre bitxiak ditu. Barrutik ere eraikin berezia da, luxua gauza xumeekin nahasten den lekua.

IV

Bermeon bizi diren errumaniarrak

Bermeon 400 errumaniar inguru bizi dira egun, gehienak, lasikoa, Maramuresekoak eta Prahovakoak. Dambovitako Targoviate hiriko familia bat ere bizi da Bermeon. Zure auzokidea, gelakidea edo lankidea errumaniarra izan daiteke. Hala ere, asko ez ditugu ezagutzen eta nongoak diren ere ez dakigu.

Hiriburuko eta herrietako bizitza ezberdinak dira han ere, herrietako bizimodua lasaiagoa da orokorrean. Denborarekin gauzak aldatzen dira, gauzak zaharkitzen dira eta berriak egin. Lehen, Errumaniako eskualde bakoitzak bere hiriburua zuen eta egun hiriburu bakarra dago, Bukarest, eta hiriak daude.

Errumaniako iparraldean, Moldovan eta Maramuresen gorde dira antzinako ohiturak ondoen. Baserrietako bizitzak mendien babesean iraun du gaur arte. Oraindik ikus daitezke zaldiek tiratutako gurdiak, ohiturazko jantziak eta herri-dantzak.

Hemen bizi diren errumaniarren perfila bi motatakoa da. Batetik, gelditzeko asmoarekin datozen gazteak daude, bikoteak, umeekin edo banakoak. Familiak ere kasu batzuetan Bermeon elkartu dira, neba-arrebak, bakoitza bere familiarekin etorriak, koinatu-koinatak...



MOLDOVAKO IASIKO FAMILIA BERMEON ELKARTU DA. Ezkerretik eskuinera: Dani, Geta, Julen eta Marina. Julian da neba-arrebetan zaharrena, 2003an etorri zen Bermeora eta Julen deitzen diote. Egun eraikuntzan lan egiten du. Geta, ama, seme-alabekin batzeko asmoz etorri zen duela gutxi, baina lasira itzuli nahi luke, dena han duelako. Marinak 21 urte ditu eta merkataritza ikasketak konbalidatu dizkiotenez, hurrengo ikasturtean batxilergoko azken urtea egingo du.

Bestetik, 45-55 urtekoak daude, seme-alaba nagusiak dituztenak eta euren herrietara itzuli nahi dutenak.

Gainera, batzuk etheen eta lurren jabeak dira euren herrietan, hemen diruduntzat hartuko genituzkeenak. Ezberdintasuna ordea honetan datza: hemendik beste herri batzuetara lanera doazen dirudunak gutxi batzuk direla eta ez direla jatetxeetan lanean aritzen.

Ustelkeria handia dago Errumanian eta bizimodua hemen bezain garestia izan arren, oso gutxi irabazten dute. 400 E-ko soldata altua da han eta oso gutxi irabazten dute hainbeste. Gainera, diru sarre-
ren erdia zergak ordaintzeko behar dute. Horrenbestez, ezin dute ezer aurreztu eta bizitzeko justuan ibiltzen dira. Olio edo gasolina hemen baino karuagoak dira han.

Errumaniako heziketa nahiko zorrotza da. Eskolan asko exijitzen diete eta prestatuta ateratzen dira. Bermeon, 16 urteko neska bat mailaz igo zuten, besteek baino gehiago zekielako, nahiz eta ikasle

bakoitzaren atzean historia bat egon. Errespetu falta, nagusien aurrean hitz itsusiak esatea, erretzea edo emakumeak barran bakarrik uztea gaizki ikusita dauden gauzak dira. Horretan nahiko tradizionalistak dira; gizon-emakumeek ezkonduak... behar dute izan.

Hemengo gizartea askea iruditzen zaie, giroa desberdina baita. Han etxeetan edo diskoteka handietan batzen dira festa egiteko, ez kalean. Hala ere, hemen gutxika ari dira gauzak aldatzen eta hainbat arlotan, beste leku batzuekin alderatuta, atzean gaude oraindik.

Errumanian dirua oso preziatua da, gutxi dagoelako. Gizarte zerbitzu gehienak pribatuak dira eta dirurik ez duena gaixorik badago, hil egingo da. Osagilearengana edo espezialistarengana doanean, ordaintzeko prest dagoena berehala hartzen dute, bestela asko itxaron behar da.

Prahova probintziako herrietako jendea bizi da Bermeon: Ploiesti, Ploeni, Sinaia, Zamfira. Gabi, Sinaiakoa da berez, Prahovako ipar-mendebaldean dagoen mendiko herri batekoa. Bizi, ordea, Valeni de Munten bizi zen, Ploiestitik Brasovera bidean dagoen herri batean. Ploeni industria herrikoak dira beste asko. Herri horretan arma fabrika handi bat zeuden eta hura itxi zutenean milaka langile geratu ziren lanik gabe.

Komunismoaren ondoren itxi zituzten fabrika guztiak. Komunismo garaian, errumaniar guztiak lana eta etxebizitza zuten; hainbat lanpostu eta etxe eraiki zituzten langileentzat. Janaria, ordea, "razionatu"



*PRAHOVAKO MUTIKO
BAT, BERMEOKO BERE
LAGUN BATEKIN.
2005eko argazkia da.
Haur eta gazteek berehala
egiten dituzte lagunak
eskolan eta euskara ere
helduek baino azkarrago
ikasten dute.*

beharra zuten, bakoitzak tokatzen zitzaiona soilik jan zezakeen. Egun, nahi adina janari jan dezakete... dirua dutenek. Izan ere, diru eskasia da egungo arazo latzena.

Gaztelu, monasterio eta eraikin monumental asko daude Errumanian, nolabait iraganeko herriaren kutsua ematen diotenak. Hala ere, gure egunerokotasunetik hangora dauden aldaketak ez dira hain nabarmenak. Hemen tabernetan eta kalean ibiltzeko ohitura dugun moduan, etxeetan egiten dituzte han jaiak, eta hainbat lagun biltzen dira. Gauez ateratzen direnean, diskoteka erraldoietara joaten dira, mila pertsona inguru sar daitezkeen horietara, hainbat argi mota dituztenetara... Oporretara joateko ere euren herrialdea aukeratzen dute normalean, eta etxolaren bat edo beste alokatzen dute, bertan oporrak igaro eta lagunak gonbidatzeko.

Gaztelu asko daudela esan dugu, bada harrizkoak eta egurrezkoak daude. Harea zuriko mendietan fabrikatzen da kristala. Daliren herrian



*MICAHELA-RAMONA 20 urteko errumaniar gaztea Bermeon bizi da. Suze-
avatik hurbil dagoen Falticeni herrikoa da. Mundakan beste jende bizi da ber-
tan gutxi gorabehera, eta lasitik 70 km-ra dago. Bermeon lasiko Marinarekin
eta honen amarekin bizi da San Andresen. Gaztelugatxeko San Juan ikusten
da irudian, baina, San Juanek zenbat eskailera dituen asmatuko al zenukete?*

lantegi handi bat zegoen, baina hura ere itxi egin zuten. “Giltzazko Mendia” izenekoa ere badago, harrizko mendiak dira, giltzen itxura dutenak. Giltza, **cheia*** da errumanieraz eta herri baten izena ere bada era berean. Turista ingeles, alemaniar... mordoia ibiltzen da parajeotan.

Gastronomiari dagokionez, haragia jaten dute gehienbat, nahiz eta arrain asko dagoen. Batez ere errekaokoak, baita berdela, sardinak eta abar ere. Parrillada patatekin jateko ohitura dute eta jende asko biltzen denean hori prestatu ohi dute. Ura irinarekin nahasi eta **mamaliga*** egiten dute. Hori tarta baten antzerakoa da eta **sarmale*** eta haragiarekin jateko ohitura dute. Sarmale, Gabonetan eta jaietan jaten den janari tradizionala da, zeina aza hartzituarekin eta haragi xehearekin egiten den.

Pikatzeko, hemen “entremesak” edo sarrerakoak esaten diegun bezala, urdaia jaten dute han. Bestalde, Errumania osoko ohitura da Gabonen aurreko astean denen artean txerria moztu eta errituala egitea. Han egon behar, etxera puskaren bat eramateko. Etxe askotan hazten dituzte animaliak, janaritarako erabiltzeko. Txerriki pila jaten dute, txerriaren dena baita jangarria; saiheskia, txorizoak, odolkiak, txuletak, urdaiazpikoa... Gabonetan, beraz, txerria duenak moztu egiten du eta prestatu ondoren txerriak jaten dute, “sarmalerekin”.

Hau izaten da etxe askotan Aste Santuko menua: antxumea, arrautza gorriak, ardo gorria eta **cozonac***. Errumaniako erlijio nagusia **errumaniar ortodoxoa*** da. Ez dira katolikoak, Jesusengan sinesten duten arren, ortodoxoak dira. Aste Santuan, elizatik atera ondoren, jendeak ardo gorria edaten du, Jesusen odola delako eta arrautza gorriek ere hori sinbolizatzen dute. Aipatu, cozonac bertako postre tradizionala dela.

Prahovako haraneko ardoa oso preziatua da. Ardogintzatik eta nekazaritazatik bizi ziren lehen batez ere, baina, gaur egun ia ez dago nekazaritazirik. Valea Calugareasca ere ardo ona egiten dute bertako mahats bereziarekin. Moldavian oso ardo onak daude, baita ohitura gehiago ere.



Lasiko Dani, txapela eta guzti.

Euren herrialdetik gutxien atsegin dutena gobernuen erabateko ustelkeria, polizia jazartzailea, armada eta gobernu dira. Dirua gutxi batzuen artean banatuta dago, eta gainontzeko herritarrak emigratzera edo baldintza ez hain onetan bizitzera behartuta daude. Komunismoan alderdi politiko bakarra zegoen, orain hainbat daude, baina, ez dute herritarren ongizatea bilatzeko ezer egiten. Kontuan eduki Muntenia Errumaniako zonalderik aberatsena dela Itsaso Beltzeko kostaldearekin batera, eta industria eta nekazaritza emankorren jabe dela.

Moldovan, ordea, ohiturak askoz hobeto gorde dira, artisauak, landa eremuak, bizitza bera eta usadioak ez dira urte luzez asko aldatu. Eskualde honetan denbora ez dela pasatu dirudi eta enkantu berezia dauka. Moldovako hiriburua lasi da (las ahoskatzen dute haiek) eta bertako jende nahiko bizi da Bermeon. Moldovako eskualdeko Falticeni herriko jendea ere bizi da, baita lasitik 45 km-ra dagoen Targu-Frumos herrikoak ere.

Salnicen harrobi bat dago, baita hiru laku ere, egun partikularrak direnak. Hango uretan ez da hondoratzen, flotatu egiten da, gatz asko duelako. Kondaira aberatsa duen tokia da, "Neska-lagunaren ibilbidea" deitua, adibidez. Dirudun gizon batekin ezkontzera behartu zuten neska gazte bat hilik aurkitu zuten harrobian. Gatzeko lakuak 40-50 metroko sakonera du eta bertako ura zeharo hotza da, dentsitate handikoa delako. Nafarroako Fiteron bezala, hango lakuko lokatzeako bainuak oso gomendagarriak eta osasuntsuak dira. Tratamendu hori emateko, gorputz guztia belztuta eduki behar da.

Andrei mutikoa urte bat eta hiru hilabeterekin etorri zen bere jatorrizko herrialdetik eta harrezkero denbora gehiago darama Bermeon.

Aitak sei hilabete hemen zeramatzan ordurako, lanera etorrita. Familia gehienek horrela egiten dute, ume txikiak dituzten kasuetan batez ere. Lehenengo aita etorri ohi da, lana bilatu, bizilekua aurkitu, herria eza-gutu eta ondoren etortzen da sendia. Andreiren gurasoak, haurrari bizimodu hobea bat ziurtatzeko etorri ziren Bermeora. Gurasoek erru-manieraz egiten diote, gurasoak kalean gaztelaniaz entzuten ditu eta eskolan euskaraz ikasten du.

Errumaniako ohitura da urte batetik hirura bitartean haurrei ilerik ez moztea. Adin tarte horretan, gurasoek erabakitzen dute umeari ilea noiz moztu. Lagunak eta senideak gonbidatzen dituzte festa horretara.

Moldavian oro har familiak ugariagoak dira eta ehungintzan, nekazaritzan eta 3. sektorean dago lana. Horregatik, ahal duena beste herrialde batzuetara joaten da, bizi-maila hobetzeko asmoz. Unibertsi-tatera ere, adibidez, gutxiago joaten dira Moldavian, baliabide ekono-miko apalagoak dituztelako.

Moldovako eskualdea zortzi probintzian banatzen da, iparralde-tik hasita: Bucovina, Botosina, Neamt, Iasi, Bacau, Vaslui, Vrancea eta Galati. Iasi, beraz, probintziaren izena eta hiriburua ere bada aldi berean; Iasi probintzian 823.000 pertsona inguru bizi dira, askok kan-pora alde egiten duten arren.

■ Berrikuspen galderak

1.- European, non kokatuko zenuke Errumania?

- a) Ipar-ekialdean
- b) Ekialdean
- d) Hegoaldean
- e) Erdialdean

2.- Zeintzuk dira Errumaniako mugak?

- a) Ukraina, Moldaviako Errepublika, Errusia eta Bulgaria
- b) Hungaria, Ukraina, Moldaviako Errepublika eta Itsaso Beltza
- d) Hungaria, Serbia, Bulgaria, Itsaso Beltza, Moldaviako Errepublika eta Ukraina
- e) Bulgaria, Bosnia, Eslovakia, Ukraina, Moldaviako Errepublika eta Itsaso Beltza

3.- Errumaniarrak zergatik etortzen dira euren herrietatik beste leku batzuetara bizitzera?

- a) Euren herrian bizitzeko diru gutxi irabazten dutelako.
- b) Euren herrian ustelkeria jasangaitza delako eta errefuxiatu politikoak direlako.
- d) Ikastera eta lan hobeetan aritzera datozelako
- e) Bidaiatzeko gogoia eta dirua dutelako.


4.- Sozialismo garaian zenbat ziren Errumaniako eskualdeak?

- a) Hamahiru
- b) Bederatzi
- d) Bost
- e) Zortzi

5.- Prahova,.....da,.....bezala

- a) probintzia / Bizkaia
- b) hiriburua / Bilbo
- d) autonomia erkidegoa / EAE
- e) denak okerrak

6.- Mapa itsuan egiteko ariketa: gutxienez eskualdeak mapan kokatu eta gutxienez 6 probintziaren izenak jarri:



Gida moduan:

MOLDAVIAKO ERREPUBLIKA MAPAN AZPIMARRATU
PRAHOVA, IASI ETA DAMBOVITA KOKATU
DANUBIO IBAIAREN IBILBIDEA SEINALATU
ESKUALDE BAKOITZA MARGO BATEKIN MARGOTU
HERRIALDEAREN MUGAK MARGOTU

7.- Zelakoa da Errumaniako klima?

- a) Kontinentala eta homogenea
- b) Mediterranea eta homogenea
- d) Kontinentala eta heterogenea
- e) Tropikala eta homogenea

8.- Trantsilvaniako mesetan, Karpatoak daude iparraldean eta ekialdean, eta.....ak hegoaldean.

- a) Hegoaldeko Karpatoak
- b) Alpe Transalpinoak
- d) Biak okerrak
- e) Biak zuzenak

9.- Zenbat dira nekazaritzako lurrak?

- a) % 27
- b) % 63
- d) % 15
- e) % 80

10.- Noiz kolektibizatu ziren lur-eremu handiak?

- a) 1949tik aurrera, sozialismo garaian.
- b) 1980an, Nekazaritzako Legea aldatu zenean
- d) 1945 baino lehenago, ekonomia nekazaritzan oinarritzen zenean.
- e) 1964tik aurrera, lehendakaria hil zenean.

- 11.- Ohitura zaharrak non gorde dira ondoen?
- a) Moldovan, Maramuresen eta Trantsilvaniako hegoaldean.
 - b) Moldovan, Trantsilvaniako iparraldean eta Muntenian.
 - d) Moldovan eta Maramuresen.
 - e) Muntenian, Moldovan eta Maramuresen.
- 12.- Non dira ohikoak “manta” itxurako lore zuriak?
- a) Errumania osoan.
 - b) Itsaso Beltzean.
 - d) Danubioko itsasadarrean.
 - e) Mendiko ibaietan.
- 13.- III. mendearen bukaeran nortzuk garatu zuten errumaniera?
- a) Godoek
 - b) Erromatarrek
 - d) Hungariarrek
 - e) Daziarrek
- 14.- Non aurkitu daitezke 2.000 landare espezie baino gehiago?
- a) Danubioko itsasadarrean
 - b) Ceahlauko natur gunean
 - d) Pietrosul Mare natur gunean
 - e) Penteleu mendietan
- 15.- Zein probintzietan daude Bucegi mendiak?
- a) Argesen
 - b) Trantsilvanian
 - d) Damvobitan
 - e) Prahovan

16.- Noiz erromatartu zen herrialdea?

- a) Trajanok Daziako probintzia sortu zuenean
- b) III. mendean
- d) Protoerrumaniera desagertu zenean
- e) Lurraldean bata bestearen atzetik erromatarren inbasioak jasan zituenean

17.- Noiz zabaldu zen kristautasuna lurralde osora?

- a) III. mendean
- b) XI. mendean
- d) XII. mendean
- e) IX. mendean

18.- Noiz zabaldu zen nazionalismoa Errumanian?

- a) Inperio Otomandarren erasoak ugaritu zirenean
- b) Otomandar Inperioaren gainbehera bukatu zenean
- d) Errusiaren aurkako gerran
- e) Denak okerrak

19.- Zertan oinarritura zegoen 1947an sortu zen Errumaniako Herri Errepublikak?

- a) Lege zibil eta teoria komunistetan
- b) Kolektibismoan eta lege zibiletan
- d) Frantziako Bosgarren Konstituzioan
- e) Sobiet Batasuneko eredu eta legeetan

20.- Sistema sozialistatik kapitalistarako jauzia zergatik izan da zaila?

- a) Industriaren eta ekonomiaren gainbeheragatik
- b) Ustelkeria kasuak eta korrupzioa areagotu direlako
- d) Moneten eta finantzen ahultasunak enpresen privatizazioari bide eman diolako
- e) Nekazaritzan milaka lanpostu galdu zirelako makinak sartuta

- 21.- Ekialdeko herrietatik.....bigarren ekoizlea da Errumania.....
- a) nekazaritzako produktuen/Poloniaren atzetik
 - b) petrolioaren/lraken atzetik
 - d) gatzaren/Poloniaren atzetik
 - e) gas naturalaren/Errusiaren atzetik
- 22.- Neguko ohiturak zergatik dira ziurrenik zaharrenak?
- a) Kristautasunarekin batera garatuak direlako
 - b) Eguzkiaren gurtzarekin zerikusia dutelako
 - d) Kristautasunaren aurrekoak direlako
 - e) Antzinako ezkontzekin lotuta daudelako
- 23.- Zer egiten dute **pararudele*** ak?
- a) Fruituak eta barazkiak espiritu txarreatatik babestu
 - b) Lehortea dagoenean euria egiteko abestiak errezitatu
 - d) Espazioaren purutasuna bilatzen dute, ureztatzearen bitartez
 - e) Lanaren hasiera sinbolikoa irudikatzen dute ijito gazteen dantzek
- 24.- Zein turismo mota bereizten dira Errumanian?
- a) Hondartzako turismoa eta bainuetxeetakoa, Itsaso Beltzeko kostaldean
 - b) Neguko kiroleetakoa eta bainuetxeetakoa, urte osoan
 - d) Hondartzako turismoa eta mendiko turismoa
 - e) Mendiko turismoa eta kultur turismoa
- 25.- Zelan deitzen diote lasiri?
- a) "Daziar askeen hiria"
 - b) "Erroma berria"
 - d) "Budaren hiria"
 - e) "Paris txikia"

- 26.- Zein izen dauka Bukarest fundatu zen tokiak?
- a) Curtea Veche
 - b) Grivita
 - d) Ferentani
 - e) Curtea de Arges
- 27.- Non dago "Eliza Beltza" izeneko Katedral gotikoa?
- a) Brasoven
 - b) Timisoaran
 - d) Sanpetrun
 - e) Craiovan
- 28.- Zein herrialdeetatik dago nahiko hurbil Timisoara hiria?
- a) Jugoslaviatik eta Bulgariatik
 - b) Serbiatik eta Hungariatik
 - d) Ukrainatik eta Hungariatik
 - e) Bulgariatik eta Serbiatik
- 29.- Zergatik gorde du Maramuresek Europako gainontzeko tokietan desagerturiko Erdi Aroko kutsua?
- a) Isolatuta egon delako
 - b) Inbasiorik jasan ez duelako
 - d) Mendien babesagatik
 - e) Errumaniako herririk zaharrena delako
- 30.- Maramurestarrak zertan izan dira trebeak historian zehar?
- a) Zura tailatzen
 - b) Ehungintzan
 - d) Lurraren lanketan
 - e) Zeramika egiten

- 31.-** Non dago XV. mendeko monasterio ortodoxoa?
- a) Sucevitan
 - b) Iasi
 - d) Botosanin
 - e) Voronet
- 32.-** Zein ibaik zeharkatzen du Moldovako eskualdea Danubiorekin elkartu aurretik?
- a) Siretulek
 - b) Falezky
 - d) Pietrosulek
 - e) Oltek
- 33.-** Zein kontsideratzen da egun Errumaniako kultur eta unibertsitate hiria?
- a) Iasi
 - b) Brasov
 - d) Bukarest
 - e) Cluj-Napoca
- 34.-** Zein da Errumaniako herririk zaharrena?
- a) Sighisoara
 - b) Iasi
 - d) Timisoara
 - e) Bistrita
- 35.-** Non hil zen Drakula pertsonaia inspiratu zuen Vlad Tepes printzea?
- a) Peleseko gazteluan
 - b) Drakularen etxean
 - d) Braneko gazteluan
 - e) Sibieleko gazteluan

36.- Zein zen duela 1.000 urte Munteniako hiriburua?

- a) Pitesti
- b) Craiova
- d) Targoviste
- e) Sighisoara

37.- Non jaiotzen da Olt ibaia?

- a) Maramures
- b) Transilvania
- d) Moldavia
- e) Bucovina

38.- 6.000 gelarekin munduko bigarren eraikinik handiena da:

- a) Ateneoa
- b) Kultura Jauregia
- d) Parlamentua
- e) Historia Museoa

39.- Valaca-k zer esan nahi du errumanieraz?

- a) Etxea
- b) Ganadua
- d) Oporrak
- e) Lautada

40.- Nortzuek garatu zuten errumaniera hizkuntza III.mende amaieran?

- a) Godoek
- b) Daziarrek
- d) Erromatarrek
- e) Moldaviarrek

- 41.-** Non mantentzen da zaldunen nobeletako giroa bizirik?
- a) Sighisoaran
 - b) Bran-eko gazteluan
 - d) Sibiu
 - e) Brasov-en
- 42.-** Zein probintzitan daude Ploiesti, Plopeni, Sinaia edo Zamfira, Bermeon bizi diren errumaniarren herriak?
- a) Maramuresen
 - b) Prahovan
 - d) Iasi
 - e) Muntenian
- 43.-** Non fabrikatzen da beira edo kristala?
- a) Harea zuridun mendietan
 - b) Osagai bolkanikodun mendietan
 - d) Micaela-Ramonaren herrian
 - e) Targoviste-n
- 44.-** Zein hartzen da "itsasadarren atetzat"?
- a) Tulcea
 - b) Murighiol
 - d) San Jorgeko kanala
 - e) Olt ibaia
- 45.-** Zein egun da sakratua baserriko bizitzan?
- a) Hileta eguna
 - b) Gabon eguna, txerri hiltzeagatik
 - d) San Juan gaua
 - e) Merkatu – eguna

46.- Polonia, Hungaria, Errusia eta Kostantinoplatik nora egiten zituzten hainbat ibilbide?

- a) Iasira
- b) Bucarestera
- d) Bacauera
- e) Sighisoarara

47.- Zer esan nahi du cheia-k errumaniaeraz?

- a) Gatza
- b) Giltza
- d) Janaria
- e) Dirua

Erantzunak:

1-b	2-d	3-a	4-d	5-a	7-a	8-e	9-b
10-a	11-d	12-d	13-e	14-a	15-e	16-a	17-b
18-d	19-a	20-d	21-d	22-d	23-b	24-d	25-b
26-a	27-a	28-b	29-d	30-a	31-e	32-e	33-a
34-a	35-d	36-d	37-b	38-d	39-e	40-b	41-a
42-b	43-a	44-a	45-d	46-a	47-b		